

ANDOAINEN ALDEKO AKORDIOA EH BILDU eta EAJ-PNVren ARTEAN

Azken hilabeteotan, Andoaingo EH BILDUK eta EAJ-PNVk alderdi bakoitzak dituen jarrera politikoak eta irizpideak partekatu dituzte, andoaindarrek epe labur eta ertainean aurre egin beharko dieten arazo ezberdinei dagokienez. Elkarrizketa-prozesu horren ondorioz, udalerraren erronka nagusiei buruzko diagnostiko bat partekatu da.

Bi aldeak bat datoz erronka garrantzitsu horiei bermez eta arrakastaz aurre egiteko Andoaingo Udalak kudeaketa gaitasuna behar duela baieztatzean. Horretarako, ezinbestekoa da iraganeko blokeo- eta konfrontazio-egoerak gainditzea, eta ahalik eta adostasun eta ulermen zabalenak bilatzen lan egitea. Gobernuan dagoenaren eta oposizioaren artean 4 urtean behin errepikatzen diren oztopo politikoak gainditu behar ditugu, begirada luzatu eta etorkizun urrunago baten inguruan lan egin ahal izateko.

Gizartea gero eta azkarrago ari da aldatzen, eta Andoaingo Udalak eguneratu eta modernizatu egin behar du bere egungo konfigurazioa, andoaindarrei ahalik eta zerbitzu hurbilena eta eraginkorra eskaini ahal izateko. Bi alderdiek uste dugu prozesu hori ez dela aldebakartasunetik egin behar, adostasunetik eta kontsentsu zabaletik baizik, prozesu horretan sor daitezkeen zailtasunak gaindituz.

Akordio honen bidez lortu nahi diren erronketako batzuk honako hauek dira: gero eta zaharragoa den gizarte baten eraldaketa sozio-sanitaria eta zaintza sistema, maila anitzeko agenda bat behar duen krisi klimatiko-energetikoa, dinamizazio handiagoa eta kalitate handiagoko enpleguak eskatzen dituen ekoizpen-sarearen garapen lehiakorra eta ekonomikoa, etxebizitza-eskaintza berria ahalbidetuko duen hirigintza-eredu proaktiboago baterantz eraldaketa, bizitzeko espazio publiko integratzaileago eta atseginagoaren kudeaketa, gure kultura zaintzeko eta euskararen erabilera sustatzeko erronka. Horren guztiaren helburuak izan behar du kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzea Andoaingo pertsona guzientzat, bereziki azpimarratuz Andoaingo Udalak eskaintzen dituen funtsezkoak eta lehen mailakoak diren zerbitzuak.

Horregatik guztiagatik, akordio hirukoitza proposatu da. Lehenengo atalean, 2024 urterako aurrekontu-proiektuari hobekuntza proposamenak adostu dira, eta hauek otsailaren 15ean bozketara jarriko dira. Bestalde, Andoaingo udalerriko erronka inbertitzaileak adostu dira, jarduteko lan egutegi bat ezarri, horiek guztiak Udalaren diruzaintzako gerakinetik finantzatu ahal izateko. Azkenik, akordio politiko bat itxi da hainbat gai desblokeatzeko eta bi alderdien arteko ekintza koordinatua sustatzeko, tokiko erronka nagusietako batzuk garatzeko.

Durante los últimos meses, Andoaingo EH BILDU y EAJ-PNV han venido compartiendo las posiciones políticas y los criterios de cada partido respecto a las diferentes problemáticas que se enfrentan las y los andoaindarras a corto y medio plazo. Fruto de ese proceso de diálogo se ha compartido un diagnóstico sobre los principales retos del municipio.

Ambas partes coinciden en que para afrontar con garantía y éxito dichos retos, se requiere de un Ayuntamiento de Andoain con capacidad de gestión. Para ello resulta fundamental superar las situaciones de bloqueo y confrontación del pasado, y trabajar en la búsqueda de consensos y entendimientos lo más amplios posibles. Debemos superar las barreras políticas que se repiten entre la parte gobernante y la oposición cada 4 años, para elevar la mirada y poder trabajar sobre un horizonte más lejano.

La sociedad está cambiando cada vez a mayor velocidad, y el Ayuntamiento de Andoain debe actualizar y modernizar su configuración actual, para poder ofrecer a las y los andoaindarras un servicio lo más cercano y eficiente posible. Ambas partes entendemos que este proceso no se debe realizar desde la unilateralidad, sino desde el acuerdo y el consenso, superando las dificultades que en ese proceso puedan surgir.

La transformación socio-sanitaria y de los cuidados de una sociedad cada vez más envejecida, la crisis climática-energética que requiere una agenda multinivel, el desarrollo competitivo y económico de un tejido productivo que reclama mayor dinamización y empleos de mayor calidad, la transformación hacia un modelo de urbanismo más proactivo que posibilite nueva oferta de vivienda, la gestión del espacio público más integrador y amable para vivir, el reto para preservar nuestra cultura y fomento de la utilización del euskara; son algunos de los retos que se persiguen mediante este acuerdo. Todo ello, con el objetivo de garantizar unos servicios públicos de calidad para todas las personas de Andoain, incidiendo especialmente en los servicios esenciales o de primera necesidad ofertados por el Ayuntamiento de Andoain.

Por ello, se plantea un triple acuerdo. En el primer apartado, se han acordado algunas mejoras en el proyecto presupuestario para el 2024 que se someterá a votación el 15 de febrero. Por otro lado, se han acordado los retos inversores del municipio de Andoain, estableciendo un calendario de actuación, para que todas ellas se puedan financiar desde el remanente de tesorería del Ayuntamiento. Por último, se ha cerrado un acuerdo político para desbloquear diferentes cuestiones y promover una acción coordinada entre ambos partidos para el desarrollo de algunos de los principales retos locales.

2024ko UDAL AURREKONTUAREN INGURUKO AKORDIOA ACUERDO EN TORNO A LOS PRESUPUESTOS MUNICIPALES PARA EL 2024

ENPLEGUA

150.000€ tokiko ekonomia sustatzeko. Tokiko merkataritzari eta ostalaritzari zuzendutako zuzeneko hainbat laguntza-lerro sustatuko dira. Eskariaren arabera handitu ahal izango da kopurua.

Digitalizatorako laguntzak. Material teknologikoa eskuratzeko inbertsioak finantzatzeko dira lerro honen bidez. Horrez gain, digitalizazio-prozesuak bultzatzeko dira erosketa-salmenta, ticketing, web edo komunikazio sisteman. Online erosketa-zerbitzuen ezarpena aztertzea ahalbidetu nahi da tokiko saltokietan, "Azoka Digitala" kontzeptuan sakonduz.

Eraginkortasun energetikora bideratutako laguntzak. Energia-kontsumoa murrizten duten merkataritza lokalak eraberritzeko, fatxadak eta ateak aldatzeko, isolamenduak instalatzeko edo kontsumo txikiko argiztapena ezartzeko jarduerak finantzatzea planteatzen da.

Irisgarritasuna sustatzeko laguntzak. Merkataritza-lokalak irisgarri egiteko era guztietako jarduerak finantzatu nahi dira, baita kalearen eta barrualdearen arteko oztopoak konpondu ere (arrapalak edo elementu mekanikoak egokitzeko obrak, bainuak, seinaleak eguneratzea).

HEZKUNTZA ETA KULTURA

25.000€ IZTURITZAGA etxearen koordinazio zientifiko eta teknikorako ARANZADIrekin hitzarmena sinatzeko. Ondarearen eta eraikuntzaren ikuspegitik benetako egoera ezagutu nahi da, eraikinaren potentzialtasunak aztertzeko.

10.000€ IZTURITZAGA etxeari buruzko beharrezko azterlan teknikoak egiteko aurreikusitako gastuei aurre egiteko (egiturazko diagnostikoa eta patologien azterketa). 2023an laser bidezko 3D eta tipografiatua gauzatu dira.

HIRIGINTZA ETA INGURUMENA

70.000€ LEITZARANGO PAPER-FABRIKAREN eremuan kutsatutako lurzoruei eta beharrezko hondakinen kudeaketari buruzko azterketak egiteko. Ereku estrategiko bat erregeneratzeko beharrezkoak diren hirigintza-izapideak hasi nahi dira, Andoaingo birika berderako sarbidea baita. Helburua gune hau andoaindarren gozamenarako berreskuratzea izan behar da.

EMPLEO

150.000€ para la promoción de la economía local. Se promoverán diferentes líneas de ayudas directas dirigidas al comercio y hostelería local. La cantidad podrá ser incrementada en función de la demanda.

Ayudas dirigidas a la digitalización. Se financiarán las inversiones necesarias para la adquisición de material tecnológico, además de favorecer procesos de digitalización en el sistema de compra-venta-pedidos, ticketing, web o comunicación. Se pretende estudiar la implantación de servicios de compra online para los productores locales, bajo el concepto de "Azoka Digitala".

Ayudas dirigidas a la eficiencia energética. Se financiarán actuaciones de reforma de locales comerciales que reduzcan el consumo energético, sustitución de fachadas y puertas, instalación de aislamientos o iluminación de bajo consumo.

Ayudas dirigidas a la promoción de accesibilidad. Pretende financiar todo tipo de actuaciones para hacer accesibles los locales comerciales y solventar las barreras existentes entre calle e interior (obras de adecuación de rampas o elementos mecánicos, baños, actualización de señalética).

EDUCACIÓN Y CULTURA

25.000€ para la firma de un convenio con ARANZADI para la coordinación científica-técnica sobre la casa IZTURITZAGA. Se pretende conocer la situación real desde el punto de vista patrimonial y constructivo para analizar las potencialidades del edificio.

10.000€ de gastos previstos para realizar estudios técnicos necesarios sobre IZTURITZAGA (diagnóstico estructural y estudio de patologías). En 2023 se han realizado el escaneado laser 3D y tipografiado.

URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

70.000€ para los estudios necesarios del ámbito de la PAPELERA DE LEITZARAN en relación a los suelos contaminados y la gestión de residuos necesarios. Se trata de iniciar los trámites urbanísticos necesarios para la regeneración de una zona estratégica, que supone el acceso al pulmón verde de Andoain. El objetivo debe ser recuperar este espacio para el disfrute de las y los andoaindarras.

5.000€ Leitzarain bailarako ZEC babes bereziko eremua handitzeko tramiteak izapidetzeko. ZEC babes izendapen berri bat bultzatzea, Adarrako mendilerro osoa Berastegiraino barne hartuz, besteak beste, inguruko belardiak eta mendiak, Usabelartzako eta Belabietako zohikaztegiak, eta Andoainen eta Adarra ibaiaren iparraldean Urnietan identifikatutako flora mehatxatuko espezieak dituzten errekek (adibidez, Leiziturriko erreka) eta hagin zuhaitz-unada jasoko dituen.

ZERBITZUAK

5.000€ URA agentziarekin batera OLAGAINGO PASABIDEA eraisteko behar diren hondakinak kudeatzeko. Kudeaketa koordinatua da, bi administrazioen arteko lankidetzaren protokoloaren barruan kokatua. URA agentziak pasabidea eraitsiko du (gaur egun egoera estruktural arriskutsuan dago), ibai-eremuaren eta inguruko errehabilitazio lanak sustatzeko, eta Udalak aldiz, hondakinen kudeaketan lagunduko du.

20.000€ Andoaingo udalerrian APARKALEKU aukera berriak aztertzeke. Partida berezia eta osagarria da, gaur egun existitzen diren aparkaleku publikoak egokitzeko erabiliko diren 420.000 euroez gain (gerakineko diru bidez hornituko direnak). Plazen eskaintza arian-arian handitu ahal izateko kokaleku berriak identifikatzea du helburu, batez ere saturatuen dauden eta zailtasun handienak dituzten gunen edo kaleetan.

10.000€ herriko SEMAFOROETAN seinaleztapen akustikoa ezartzeko. Zebrabidetan hobekuntzak sustatu nahi dira, ibilbide irisgarriak bermatu ahal izateko.

EUSKARA

12.500€ PARKETARRAK ekimenerako. Aisialdian euskararen erabilera bultzatzea planteatzen da. Dagoeneko 800 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute herriko parke ezberdinetan sustatu diren hainbat jolas-jardueratan, txikienei eta haien arduradun zuzenei aisialdian eta denbora librean euskaraz hitz egitera animatzeko.

7.500€ EUSKARAZ BARRA BARRA ekimena sustatzeko. Helburua da jendeak erraztasunak izatea identifikatzea zein saltoki eta establezimendutan hitz egin daitekeen euskaraz. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak bultzatutako proiektu bateratua da, eta Andoaingo herria izan da udalerririk bultzatzaileetako bat.

5.000€ para los tramites necesarios para la ampliación de la zona de protección especial ZEC del valle Leitzarain. Impulsar la declaración de un nueva ZEC incluyendo todo el cordal del Adarra hasta Berastegi prácticamente, que integre entre otros, las praderas y montañas de la zona, las turberas de Usabelartza y Belabieta, y los arroyos con especies de flora amenazada identificadas en Andoain y al norte del Adarra en Urnieta (por ejemplo, Leiziturriko erreka), más el rodal de tejos.

SERVICIOS

5.000€ para la gestión de residuos necesario para la demolición del PASO DE OLAGAIN con URA. Se trata de una gestión coordinada y enmarcada dentro del protocolo de colaboración entre ambas administraciones. URA procederá a la demolición del paso (se encuentra en una situación estructural peligrosa) para promover la regeneración del espacio fluvial y el Ayuntamiento colaborará en la gestión de los residuos.

20.000€ para analizar nuevas oportunidades de APARCAMIENTO en el municipio de Andoain. Se trata de una partida diferenciada, aparte de los 420.000€ que se destinarán a acondicionar los aparcamientos públicos existentes (desde remanente). Su finalidad es identificar nuevos emplazamientos donde poder incrementar progresivamente la oferta de plazas, incidiendo especialmente en las zonas o calles más saturadas y donde mayores dificultades existen.

10.000€ para la incorporación de señalización acústica en SEMÁFOROS. Se pretende promover mejoras de los pasos de cebra, para poder garantizar itinerarios accesibles.

EUSKARA

12.500€ para la iniciativa PARKETARRAK. Se persigue dar impulso a la utilización del euskera en el ocio. Más de 800 personas han participado en diferentes actividades lúdicas que se han promovido en los parques del municipio para animar a las y los más txikis y a sus responsables a hablar en euskera en el tiempo libre u ocio.

7.500€ para el fomento de EUSKARAZ BARRA BARRA. Su fin es que la gente identifique los comercios y establecimientos en los que se puede hablar en euskera. Se trata de un proyecto conjunto impulsado entre el Gobierno Vasco y el Gobierno Navarro, donde el pueblo de Andoain ha sido uno de los municipios impulsores.

KIROLAK ETA ARIKETA FISIKOA

70.000€ UDAL KIROL INSTALAZIOETAKO MAKINERIA mantentzeko eta hobetzeko. Ohikoak diren urte anitzeko aurreikuspen ekonomikoak indartu dira, erabiltzaile ugari maiz eskatzen dituzten kirol makinaren hobekuntza eta berritzea azkarrago burutzea posible izan dadin.

12.000€ KIROL EGOKITUA sustatzeko, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioarekin (GKEF) egindako hitzarmen baten bidez. Finantziario horren bidez, bi erakundeen arteko aldebiko harremana formalizatu nahi da, eta Andoaingo herrian kirol egokitua ikusaraztea eta normalizatzea ahalbidetuko duten dinamikak ezberdinak sustatu nahi dira. Horrela, kirol-arloan jarduerak koordinatu edo sustatuko dira, orain arte tokiko elkartegintzatik eta kirol-klubetan egin diren ekimenak osatuz.

DEPORTES Y ACTIVIDAD FÍSICA

70.000€ para el mantenimiento y mejoras de la MAQUINARIA DE LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS MUNICIPALES. Se refuerzan las previsiones plurianuales, para poder acelerar la mejora de las maquinarias altamente demandadas por las personas usuarias.

12.000€ para el fomento de DEPORTE ADAPTADO mediante un convenio con la Federación Gipuzkoana de Deporte Adaptado (GKEF). Mediante esta financiación se pretende formalizar una relación bilateral entre ambas instituciones y promover en el pueblo de Andoain dinámicas que permitan visibilizar y normalizar el deporte adaptado. Así desde el área de deportes se coordinará o promoverán actividades, sumando a las que hasta ahora se han desarrollado desde el asociacionismo y los clubes deportivos locales.

INBERTSIO-LEHENTASUNEI ETA DIRUZAINZAKO GERAKINAREN KUDEAKETARI BURUZKO AKORDIOA

ACUERDO EN TORNO A LAS PRIORIDADES INVERSORAS Y LA GESTIÓN DEL REMANENTE DE TESORERÍA

Andoaingo udalerriko lehentasunezko inbertsioak identifikatu eta adostu dira. 2023ko behin betiko likidazioaren berri izan ondoren, bi alderdiek konpromisoa hartzen dute adostutako partidak diruz hornitzeko beharrezkoak diren kreditu-aldaketak aurrera eramateko. Hauek betetzeko egutegi bat ezarri da, eta, kasu batzuetan, urte anitzeko zuzkidura ekonomikoak beharko dira.

Se han identificado las inversiones prioritarias del municipio de Andoain. Una vez que se conozca la liquidación del 2023, ambas partes se comprometen a apoyar los modificativos de crédito que resulten necesarios para dotar de dinero a las partidas acordadas. Se ha establecido un calendario de cumplimiento, que en algunos casos requerirá de dotaciones económicas plurianuales.

1 ERANSKINA atxikitzen da

Se adjunta **ANEXO 1**

TOKIKO GAI DESBERDINETAN EKINTZA POLITIKO KOORDINATURAKO AKORDIOA ACUERDO PARA LA ACCIÓN POLÍTICA COORDINADA EN CUESTIONES LOCALES

UDALAREN BERRANTOLAKETA: Herritarren beharrei erantzuna emateko eta Udal bezala ahalik eta zerbitzu eraginkorrena eskaini ahal izateko, funtsezkoa da udal egituraren berrantolaketa. Norabide horretan hurrengo hilabetetan urrats ezberdinak emango dira.

LIBURUTEGI BERRIA BULTZATZEA: Liburutegiaren mahaia berraktibatzea eta bultzada adostu da. 2023an burututako kokapen alternatiba desberdinen azterketaren emaitzei erreparatuta, bi aldeek berme onenak eskaintzen dituen kokapena bultzatuko dute, eta horretarako beharrezkoak diren hirigintza-izapideak abiaraziko dira. Aldi berean, egungo Liburutegiaren baldintzak duintzen saiatuko dira, eta liburutegia larunbat eta igande goizetan irekitzeko modurik eraginkorrena zein den aztertuko da, herritarrek aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan erabaki zutenari erantzun emateko.

MARTIN UGALDEREN FUNTS PUBLIKOA: 2021etik Andoaingo Udala Martin Ugalderen Udal Funtsa digitalizatzen ari da. Idatzizko eta multimediako materialen digitalizazioa osatzeko unea da, eta material horiek erreproduzitzeko eta zabaltzeko eskubideak eskuratu ondoren, herritarrekin modu publikoan partekatzeko unea. Helburu horretarako webgune bat martxan jartzearen lehentasuna aurreikusi da.

GALARDI HAURRESKOLA: 2023an hartutako konpromisoari eustea erabaki da, Andoaingo haurreskolaren matrikula %100ean doakoa izan dadin, inguruko herriekin alderatuta penalizazioak saihestuz eta eskaintza lehiakorra eskaini ahal izateko, eskualdean eskaintzen ari denarekin bat etorriz. Aldi berean, Galardi Haurreskola Partzuergoaren sarean sartzea aztertzeko prozesuari ekingo zaio, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin lankidetzan. Prozesu hori gaur egun eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea uneoro bermatuz garatuko da.

HONDAKINEN KUDEAKETARI BULTZADA EMATEA: jauzi kualitatibo bat egiteko unea da, eta bi aldeek adosten dute birziklatze-tasa %70etik gora hobetzeko neurriak bultzatzea. Horretarako, funtsezkoa da gaikako bilketaren eta bereziki errefuxaren kudeaketa optimizatuagoa egitea eta gainerako gaien bilketa ehunekoak handitzea (organikoa, papera, beira, ontziak, olioak, kafe-kapsulak...). Bestalde, Tolosaldeko Mankomunitatearekin lankidetzan, edukiontzien eguneratzea eta hobekuntzak bultzatzea adostu da, adibidez, edukiontzien irisgarritasuna bermatuz.

REORGANIZACIÓN DEL AYUNTAMIENTO: Para dar respuesta a las necesidades de la ciudadanía y para ofrecer un servicio lo más eficaz posible como Ayuntamiento, es fundamental la reorganización de la estructura municipal. En los próximos meses se darán pasos en esa dirección.

IMPULSO A LA NUEVA BIBLIOTECA: Se acuerda reactivar la mesa de la biblioteca. Atendiendo a los resultados del estudio de alternativas de las diferentes ubicaciones realizadas en 2023, ambas partes impulsarán la ubicación que mejores garantías ofrezca y se pondrán en marcha los trámites urbanísticos necesarios para ello. En paralelo, se tratará de dignificar las condiciones de la Biblioteca actual, y se estudiará la manera más eficaz para poder proceder a la apertura de la biblioteca los sábados y domingos a la mañana, tal y como la ciudadanía decidió en el proceso de presupuestos participativos.

FONDO DE MARTIN UGALDE PÚBLICO: desde el 2021 el Ayuntamiento de Andoain viene digitalizando el Fondo Municipal de Martin Ugalde. Es momento de completar la digitalización de los diferentes materiales escritos y multimedia; y una vez resuelto los derechos de reproducción y difusión de los mismos, compartirlos de manera pública con la ciudadanía. Prioridad de poner en marcha una web para tal fin.

GUARDERÍA GALARDI: Se acuerda mantener el compromiso adquirido en 2023 para que la haurreskola de Andoain pueda ser 100 % matrícula gratuita para evitar agravios comparativos y poder ofrecer una oferta competitiva, acorde a lo que se está ofreciendo en la comarca. En paralelo, se iniciará el proceso, en colaboración con el Departamento de Educación del Gobierno Vasco, para estudiar la integración de la Haurreskola Galardi en la red del Partzuergo. Este proceso se desarrollará garantizando en todo momento la calidad del servicio ofertada en la actualidad.

IMPULSO A LA GESTIÓN DE RESIDUOS: es momento de dar un salto cualitativo, ambas partes acuerdan impulsar medidas para mejorar la tasa de reciclaje por encima del 70%. Para ello resulta fundamental realizar una gestión más optimizada de la fracción resto (errefuxa) e incrementar los porcentajes de la recogida del resto (orgánico, papel, vidrio, envases, aceite, capsulas café...). Se acuerda impulsar, en colaboración con la Mancomunidad de Tolosaldea, actualización y mejoras en los contenedores, por ejemplo, garantizando la accesibilidad de las mismas.

APARKALEKUEN ASFALTATZEA ETA LANDA-BIDEEN MANTENTZE-LANAK: bi aldeek urte anitzeko jarduera-plan bat adostu dute aparkaleku publikoen asfaltatzearen bidez egungo aparkaleku-baldintzak hobetzen joateko, baita landa-bideak mantentzeko plan jarraitu bat ere.

TELELAGUNTZA ZERBITZUA ZABALTZEA: Telelaguntza-zerbitzua udalerrian zabaltzeko eskumena duten erakundeekin lankidetzan aritzea erabaki da; gaur egun, 80 urtetik gorako pertsona guztiei eta, pixkanaka, 65 urtetik gorakoei ere. Zerbitzu honen helburua da bakarrik bizi diren pertsonen arreta profesionala emateko leerro espezifiko bat abian jartzea.

Bi aldeek horrela adostuta, akordioaren jarraipena egiteko eta ekimenen gauzatze maila egiaztatzeko hiru hilabetez behin jarraipen batzordea bilduko da. Koordinazio organo horrek balioztatuko edo berrestuko ditu egon daitezkeen aldaketak.

ASFALTADOS DE APARCAMIENTOS y MANTENIMIENTO DE CAMINOS RURALES: ambas partes acuerdan un plan de actuación plurianual para ir mejorando las condiciones de aparcamiento actuales mediante el asfaltado de parkings públicos; así como un plan continuado de mantenimiento de caminos rurales.

AMPLIACIÓN DE TELEASISTENCIA: Se acuerda colaborar con las instituciones competentes en extender el servicio de teleasistencia en el municipio; en la actualidad a todas las personas mayores de 80 años y, progresivamente, a las mayores de 65. Este servicio persigue poner en marcha una línea específica de atención profesional a personas que viven solas.

Ambas partes acuerdan, realizar trimestralmente una comisión de seguimiento para tratar los diferentes puntos del acuerdo y la verificación del grado de ejecución de las iniciativas. Este órgano de coordinación validará o ratificará los posibles cambios.

Andoni Alvarez Lete
Andoingo Alkatea

Imanol Goenaga Egibar
EAJ-PNVko bozeramailea

Marta Lasa Goñi
EHBilduko bozeramailea

Idoia Mikelez Alonso
EAJ-PNVko zinegotzia

ERANSKINA / ANEXO 1

	1. HIRUHILEKOA	2. HIRUHILEKOA	3. HIRUHILEKOA	4. HIRUHILEKOA	AGINTALDIKOA	
APARKALEKUAK	AURRE LANKETA				Plurianuala	
BARATZAK	HITZARMENA	LURRA TXUKUNDU	LURRA TXUKUNDU	ZOKKETA		
LIBURUTEGIA	LIBURUTEGI MAHAIA					
KIROLDEGIA	PROIEKTUAREN IDAZKETA				AMAITU	2027
BARREDORA		gastu txostena, onespena, plegua, batzordea eta osoko bilkura edo lizitazioa				
GARABIA		gastu txostena, onespena, plegua, batzordea eta osoko bilkura edo lizitazioa				
DUNPERRA		gastu txostena, onespena, plegua, batzordea eta osoko bilkura edo lizitazioa				
OTITAKO ERABERRITZEA	MARTXAN JARRI	GAUZATU				
ERREPIDEEN ASFALTA	Kaleen inbentario a errepasatu	zerrenda eta plegua	lanak hasi	lanak jarraitu		
LEITZARAN KALEA	Azterketa					
PLAZAOLAKO DRENA	Proiektua errebisatu	plegua egin				
DOCTOR HUIZI KOMUN	Azterketa	plegua egin	egin			
UDALETXEKO OBRA		PLEGUA	LIZITAZIOA	OBRA		
ANBROSIA OLABIDE FATXADA	lizitazioa	OBRA	OBRA	OBRA	AMAITU	2025
UDAL ERAIKIN, LOKAL MANTENUA	Inbentarioan azterketa. Aurreko legealditiikan hitzartutak zeuden lanak egin	erabilpena ikusi eta taldeekin bildu		Beharrezko lanak egin		
BASTEROKO AULKIAK		AZTERKETA MARTXAN JARRI				
BEKOPLAZA AZTERKETA		AZTERKETA AMRTXAN JARRI				
PANELAK HERRIGUNEAN		Azterketa				
IGERILEKU NATURALA AZTERKE	aurreproiektua	proiektua	proiektua	lizitazioa	AMAITU	2025
GABRIEL ARESTI	IDAZKETA	LIZITAZIO	LIZITAZIO	HASI	AMAITU	2025
ZERBITZUTAKO PABILOILA	POIEK IDAZKETA	LIZITAZIOA	LIZITAZIOA	ZIMENTAZIOA	AMAITU	2025
GOIBURUKO PLAZA	PARTEHARTZE	PARTEHARTZE- PROIEKTU				
GAZTETXEKO OBRA		Azterketa				
LEIZOTZ SANEAMENDUA			2. fasea			
ZAINZAREN AZTERKETA		KONTRATAZIOA				
EMAKUMEEN ETXEA AHOLKU			KONTRATAZIOA			